

Goibek Kale

Elgetako aldizkaria martxo 55zk.

Goibek

5 urte



5. urteurrenean etorkizunari begira

FERMIN IRIBAR
SAN ROKE 36-1

Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA-ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxe: 94 6583061.

Berriro Antenak? Berriro Antenak!!

Hasteko azaltzea nahi dizuegu "Antenak Herritik Urrun" taldeak "maya" ingurugiro taldearekin bat egiten duela.

Gure herrian berriz ere beste antena bat ezartzea nahi dute, oraingoan Larra-biltzarra inguruan. Konpainia berak gainera!!!!

Garbi ikusten dugu herriaren hitza ez dutela aintzakotzat hartzen, baizik eta bost axola zaiela herritarrok esateko duguna. Euren interesak ekonomikoak dira bakarrik. Ingurunea, kutsadura, pertsonak... ez zaizkie inporta, diruaren morroi dira.

Euskal izenen babesean, iragarkietan, inguru, irudi dotoreak, ikusgarriak erakutsiz menderatu nahi gaituzte interes publikoaren izenean gu ere euren morroi bihurtuz.

Herritarrok gure herria eta ingurunea babesteko eta defendatzeko eskubidea dugu. Horregatik aldarrikatzen dugu ez zaiela pertsonak bizi diren inguruetan antenak ezartzeko baimenik eman behar. Urrunago topa dezatela euren tokia.

Maya ingurugiro taldea

Hauteskundiak eta ardixak

Argi laga gura dotena, bai Espainiako eta bai Baskongadetako hauteskundietan bakotzak nahi dabena bozkatzen dabela; baiña oinguan abstenitu gazenok ez gazela ardixak. Eta hori zegaittik? HBn edo EHn egin dana eztabaidia dalako, gaiñera

gura daben danak hartu leike parte. Orduan, garbi laga bihar dana zera da: guri behintzat ez esan BEE egin dogunik.

"Minoria" izango da EH, baiña zenbat bidar ikusi dogu gutxienguk arrazoa dakala, edo ez? Bestela, hamendik aurrera gaizki bihar dogu Euskal Herrixan. Beti pasatzen dan moduan gutxi batzuk eukitzen dabe adoria moldiak apurtzeko, eta gerora "gehienguk" bardiña egiñ edo eskatzen dabe.

Hurrenduan seguru nago danontzako errezagua izango dala holako gauzaren bat egittia, oinguan betiko "ardi baltzak" egin doguna bakarrik egiñ arren.

B.Z.

Beeti berdin

Norberak aukeratzea da ego-kiena, noski baietz. Baina ezagutzen al ditugu aukera guztiak edo denak ezagutzeko aukera berdina ditugu? Zer aukeratu behar dugu telebista, irrati eta egunkari gehinek informatzen (edo desinformatzen) dutenaren arabera? Nork egiten du beee, bakarrik abstenitu zirenak? Eta botoa eman dutenak ezagutzen zuten benetan zer botatzen zuten?

Egia esan ez dugu uste 4 urtetik behin botoa ematea nahikoa denik, nahiz eta badirudien horrekin salbatzen dela deneri horrenbeste erabiltzea gustatzen zaien eta gero benetan horrenbeste betetzen ez den demokrazia famatua. Baina

zer da beee egitea abstenzioa eskatzen delako abstenitzea edo botoa eman eta 4 urterako ahaztea? Zatiketa hor dago abstenzioa eskatu edo ez, momentuz zoritxarrez abertzaleok ez garelako ados jartzen. HBk orain arte inoiz ez du partehartu Madril-en, parte hartzera joan zen bakarrean Josu Muguruza hil eta Iñaki Esnaola tirokatu zuten.

Euskal Herria jasaten ari den egoera larria da, baina erantzunkizuna bakoitzak berea hartu behar du. ETak egina bere erantzunkizuna da soilik. Beste egoera batzuk ere jasaten ditugu eta horien erantzunkizuna dagokionak hartu behar du, egoera horiek dira gehienetan ahazten ditugunak, presoen sakabanaketa, egiten ari diren gose greba, bakarrik kasu oso larrietan agertzen direnak medioetan.

Batzuk beee egiten dutela esatea ongi iruditzen zaigu nahiz eta ados ez egon, baina beti berdinei akatsak topatzen ibiltzea ez dakigu zergatik gertatzen den, tontokeria bat da batzuk beee egiten dutela esatea, gizartearen zati handi bat guztiz desmobilizatuta bizi denean eta duten ardura bakarra beraien bizitza ahalik eta ondoen aurrera etaratztea denean bes-teenari inongo errespeturik izan gabe, eta ez dugu uste horrelako jendea denik abstenitu zena. Ezker abertzalea da gure ustez benetan saiatzen dena jendearen parte-hartzea bultzatzen maila guztietan.

Greba orokorra minoritarioa izango zen beharbada baina hori jende askok beee egiten duelako izan daiteke. Eta ezker abertzalean saiatzen gara artzainik egon ez dadin eta garrantzitsuak diren erabakiak denon artean hartzen, ez bakarrik artzain batzuen artean.

Elgetako EH

Udaberria

Urtero bezala, aurten ere etorri zaigu Udaberria. Etorri betiko moduan etorri zaigu: loreak mendian, txoriak txoriekin txorakeriak egiten, kukuak kukuka... Corte Inglesaren anuntziorik ikusi ez arren etorri da, bai. Dena argia, kolorea, alegria eta alergía. Dena? Ez, aurten dena ez da poza udaberrian; izan ere, aurtengoan udaberriak ez du gauza onik ekarri Elgeako mendietara: Arabatik, Gipuzkoatik edo ingurutako mendietatik (Udalaitzik...) begiratuz gero, Elgean jigante batzuk ikusten dira zutik, Santxo. Daudenak tente daude, harro, eta besoak ere laster jarriko dizkiete jira-biraka hasteko. Eta hasierako horiek beste batzuei deituko diete, eta jigante gehiago etorriko dira. Kontsolamendu bakarra da haizerrotok desagertutakoan ere udaberria bisitari izango dugula urtero.

Miki

ESTAMPACIONES
INTXORTA S.A.



AENOR



Empresa Registrada

RE-011344

Betsaide poligonoa 2-B. lur saila. Pabilioi zk.: B9- B12. Posta Kutxa 106 48230 Elorriko

Tel.: 94 6231914 Faxa.: 94 6231928



Tristoria

Ez nituen izandako emaitzak espero, egia esan, inoiz ez dut asmatzen aurreikuspenak egiterakoan, (ez nik eta ezta inkestek), baina martxoaren 12an gertatutakoa, pentsatu nezakeena baino askoz tristeagoa izan da.

Deba Goienean abstentzioa handia izan da, botoa eman genezakeen erdiak besterik ez genuen bozkatu, abstentzioak, 20 puntu gora egin zuen, aurreko hauteskundeekin konparatua. Zeozertarako balio izan du?, gauza baterako bai, oso irakurketa ezberdinak egiteko; PPkoek diote abertzaletasunaren zikloa amaitzeaz dagoela, EHkoek abstentzioa responsablea izan dela eta euren tesia garaile atera dela. EAJ pozik gora egin baitu...

Nire ustez kasu honetan isiltzen dena, hau da, botoa ematen ez duenak, botoa nolabait garailearen eskuetan usten du. Eta estatu mailako hauteskundeak izanda...

Emaitza kezkarriak izan dira, EAJK gora egin du, eta nahiz eta EAk piska bat behera egin emaitza hauekin koalizioaren zutabeak ez dira ahuldu, eta Euskal Gobernuan mantendu ahal izango dira. PPK gorakada handia izan du eta partidu ezkertiarrek sekulako jeitsiera izan dute, bai PSOEek eta baita Ezker Batuak ere. Ni neu behintzat, lehen baino kezkatuagoa nago, besteak beste honako emaitzagatik; PP garaile EAeko kapitalean, bailaran hirugarren indarra... Nora ailegatu behar dugu?

Dena den garbi daukat gauza bat, su etenaren amaiera, izandako atentatuek, hainbat famili hondatzeko balio izateaz gain, Mayor Orejari arrazoia emateko balio izan dute. Euskaldun askok ez bezala, berak, ez du sekula sinestu su etenean, eta berak, tamalez, bai asmatu zuen aurreikuspena egiterakoan, eta botoa ematerakoan, duda barik eragina izan du.

Iñaki Ugarteburu



Eta orain zer

Hauteskunde hauen emaitzak sakonetik begiratuta, Euskal Herri mailan ez da aldaketa nabarmenik somatzen. Botu espainolistak orain lau urteko kopuru berean jarraitzen du. Lehen %40.7 eta orain % 40.3. PPK irabazi dituen botoak PSEk eta IUk galdu dituzte. Garbi dago espainolistek botu emaile gehienak mobilizatu dituztela, abstentzioaren aurka kriston kanpaina eginez, abstentitzea ETari botoa ematea zela esanez.

Euskal alderdiek ere ez dute aldaketa nabarmenik izan. PNVk irabazi dituen botoak EAtik etorri zaizkio eta banakan bat EHTik.

Ezker abertzalearen betiko boto emailea oraingoan abstentitu egin da. Abstentzioaren emaitzak onak izan dira zonalde euskaldunenetan. Gipuzkoako herri gehienatan, Nafarroan erditik gora eta Bizkaiko herri euskaldunetan. Baina eskasak hiriburuetan eta herri erdaldunetan. Elgetara begiraturaz emaitzak bide beretik joan dira. PNVk orain lau urte baino 23 boto gehiago lortu ditu, EAk 5 gutxiago, PPK 10 gehiago eta PSEk eta IUk 11na gutxiago. 161 elgetar abstentitu dira. HBk 158 boto atera zituen orduan.

Emaitzak ikusita, abertzaleok aukera galdu dugu, denok elkartuta abstentzioa bultzatuz % 60tik gora lortuko genuen, etorkizuneko Euskal Herri askearen lehen oinarriak ezarriz.

Espainiako parlamentuan, PPren gehiengo osoarekin, hara doazen diputatu abertzaleak ez dute inongo aukerarik heuren proposamenak aurrera ateratzeko. Abertzaleok gogoea egiteko garaian aurkitzen gara. Madrilekin loturak hausten hasi, eta geure etxea eraikitzen ekiteko, Lizarra-Garaziko biderei jarraituz, espainolak gure etxearen jabe egin baino lehen.

Jakina da, Bruselara joateko Madrildik pasatu beharrik ez dagoela.

Sebas Arantzabal

GOJBEKOKALE

Argitaratzailea: Goibeko Kultur Elkatea. Salbador kalea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Oxel Erosarbe, Bittor Gallastegi eta Igor Arizmendiarieta. **Erredaktoreak:** Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatzta. **Publizistak:** Jone Oianguren, Miren Atxotegi eta Izaro Arrazola. (Tel: 943789085). **Banaketa:** M. Elena Eztenaga, Ikastola. Tirada: 700 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. ISSN: 1135-3538. **E-mail:** goibeko@topagunea.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

kutxa

*gizarte-ekintza
obra social*



Eusko Jaurilaritzako
Kultura sailak diruz
lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek
Elgetako Udalaren
laguntza jaso du



Aldizkari honen
argitaratzailea

Betagarrik Gaztetxea bete zuen

Martxoak 18an Gaztetxiak 4 urte bete zituen. Egun guztiko ekitaldiei amaiera emateko, Betagarri taldeak kontzertua eskaini zuen Gaztetxera gerturatu ziren 300 lagun baino gehiagorendakot.

Betagarri taldeak bere hirugarren diskoa aurkeztu zuen Elgetan. Talde gasteiztarrak sei urte daramatza musikan murgilduta. Taldea bederatzila lagunek osatzen dute, gu taldeko abeslaria den Iñakirekin egon gara.

- Gaur egun jende asko mugitzen duzuen taldea zarete, nolakoak izan ziren hasierako denborak? Hasieran ez genekien nondik nora joango zen gauza, ez genuen etorkizuna argi ikusten. Lagun talde bat elkartu ginen eta lokalean ordu asko eman genituen entsaiatzen. 3 urtetan taldea ez zuen inork ezagutzen, beraz ez genituen kontzertu asko ematen. Hala ere ilusio handiko egunak ziren, denborarekin ilusio edo xarma hori itzaltzen joaten den arren, talde guztietan bezala. Maketa atera eta kontzertuak ematen hasi ginen batez ere Bizkaia aldean. Gero, Mil a Gritos-ek aukera eman zigun bi diska ateratzeko eta azkena Esan Ozenki disketearekin atera dugu.

- Nola definiduko zenuke zuen musika? Gure musika definitzea ez da erraza, ez diogu etiketarik jartzen. Ska eta rock nahasketa izan daiteke jotzen ditugun instrumentuen arabera. Gure musikari izena jartzekoan asmatua izango da: patxanga, katxibatxe sound... Jendeak asma dezala kontzertuetan egon eta gero zer musika jotzen dugun.

- Disko asko saltzen dituzue, kontzertuak astero... musikaz bizi daiteke Euskal Herrian? Ez, Hertzainaken esaldi

famatu harek esaten duen bezala "rock and rollak ez du dirurik ematen". Arrazoi oso zeukaten. Euskal Herrian oso talde gutxi bizi da musikatik. Euskal Herria txikia da eta gazteria musika mundu desberdinetan bizi da. Jende oso gutxi bizi da bai musikatik eta baita telebista edo antzerkian aktore lan egitetik.

- Azken diskoan Euskal Herriko musikari omenaldia egin diozue. Zergatik hauek? Diska hau Euskal Herriko musikari omenaldia izan da, bai diskan sartu direnei eta baita sartu ez direnei ere. Gure musikara ondoen egokitzen ziren taldeak sartu ditugu. Batzuk kanpoan utzi ditugu, diskan hogeita hamar talde bakarrik sartzen zirelako. **Bat aukeratzekotan zein eta zergaitik?** Argi eta garbi Hertzainak. Hertzainaken lehenengo diska izugarria da.

- Bertsioen ondoren, disko berria noizko? Abendurako etorriko da seguruenik, Durangoko azokarako.

- Letra errebindikatiboak dituzten abesti asko kaleratu dituzue, ba al dauka konponbiderik

Diska hau Euskal Herriko musikari omenaldia izan da, bai diskan sartu direnei eta baita sartu ez direnei ere



Iñakiren ustez makro diskoteketan entzuten den musikari alternatiba dira horrelako Gaztetxeak.

gizartea eta Euskal Herriak? Konponbidea gauza guztiek daukate. Arazoak konpontzeko bideak bilatu behar dira hitz egin behar da. Gertatzen da hemen batzuk bakarrik hitz egiten dute, besteak beraien tesi hotz eta tinkoekin daude geldirik. Gure eskubideak ez badiutuzte errekonozitu nahi beraien arazoa izango da. Hori bai konponbidea badago, konponbidea bilatu nahi bada behintzat.

- **Kontzertuak egiteko zein da leku egokiena?** Leku txikitan nahiko ongi moldatzen gara. Gu plazetan jo-tzera ohituta

gaude, kontzertuen gehiengoa plazetan jotzen dugularik. Leku txikietan jendearen berotasuna beranduago hasten da nabaritzen, baina gero, berotasuna handiagoa da, jendea gertuago daukazulako.

- **Zer iruditu zitzaizuen Elgetako Gaztetxia?** Kristona, kontzertuak egiteko lekua txikia izan arren oso ondo dago. Okuapzio hori herriarentzako eta gazteriarentzako izugarri positiboa izan da. Makro diskoteketan entzuten den musikari alternatiba dira horrelako Gaztetxeak.

- **Zer eskaintzen du Betagarrik bere emanaldietan?** Jaia, errebindikazio eta ia bi orduko mugimendu alternatiboa.

Ekintza desberdinak aurtengo jaietan

Aurtengo jaietarako, herrian galduta dagoen ekintza bat berreskuratu nahi da: tanborrada. Tanborrada hau, jaietako zapatuan egiteko asmoa dago. Ekintza aurrera eramateko 100 lagun apuntatzea beharrezkoa da eta ehuneko hori lortu da. Zenbat gehiago izango dira? Herriko hainbat elkartek parte hartuko dute tanborradan eta apuntatzeko epea apirila-

ren 10ean amaituko da. Apuntatuta dauden guz-tiei abisatuko zaie entsaioak noiz izango diren.

Ekintza honek harrera ona izan du elkar-te eta herriko jendearen aldetik.

Tanborradarako materiala Elorriotik ekartzeko asmoa dago eta eurak izango dira ensaiuak antolatzen

lagunduko dutenak.

Jubilatuen eguna

Jaietako Barikuan, jubilatuen egunean, beste ekintza desberdin bat egiteko asmoa dago. Aurten, bazkaldu ondoren, plazara dantzan egitera urte-tzeko asmoa dago. Egingo duten dantza sinplea izango da eta apuntatu nahi duenak, izena emateko aukera dauka Udale-

txean Apirilaren 11 baino lehen.


Egun horretarako, plaza aintzinako erara apaintzeko asmoa dago eta erromeria izango da lehengo erara.

Apirilaren 5ean, jubilatuen elkarteko bileran, informazio gehiago emango da eta nahi izanez gero, bertan apuntatzeko aukera egongo da.

Bideskak jasoko dituen gida prestatzen

Mankomunitatean herri bakoitzeko bideska bat agertuko den gida prestatzen dihardute. Bideska hauek Mendi Federazioak homologatuko ditu eta behar bezala seinalatuko dira. Elgetako Udaletxea zein bide izan daitekeen interesgarriena aztertzen dihardu.

Aipatu behar da argazkian agertzen den bezala, Euskal Herriko Mendi Federazioko artxiboaren gehiengoa Elgetan dugu. Norbaitek ikusi nahi izanez gero, eskaera Mendi Federaziora bidali beharko du bere mendi taldearen bidez.



Mendizale Elkartearen artxiboak badu bere lekutxoak Udaletxean.

Erakusketa Brasilgo Lurgabeen Nekazarien inguruan

Udaletxeko kultura batzordeak Medicus Mundiren argazki erakusketa bat antolatu du Brasilgo Lurgabeen Nekazarien inguruan. Argazkiak Sabastiao Salgadorenak dira eta bertan milaka gizon-ema-kumek lurrari etekina ateratzeko egiten duten eguneroko lana, nekazaritza-gatazka eta landa-indarkeria azaltzen dira beste . Erakusketa Apirilaren 28tik 30era bitartean egongo da kultura etxean eta 28an Alberto Martinez Lopezek hitzaldia emango du arratsaldeko 7etan. Alberto Martinez Lopez, urte askotan bizi izan da Brasilen, bertako mugimendu sozial askotan parte hartuz.



Maya ingurugiro taldea sortu da

Elgetako ingurugiroa dela eta arduratuta dau-den herritar batzuk Maya ingurugiro taldea sortu dute. Talde honen helburu nagusia herriaren garapen euskorra sustatu eta ziurtatzea da eta hau aurrera eramateko Udaletxeko ingurugiro ardura-dunarekin elkarlanean arituko dira. Aurrera eraman nahi diren proiektu-

tuen artean honek izango lirateke:

-San Roke osteko berdegunea aisialdirako berreskuratzea.

-Lantegietan eta etxeetan pilatzen diren olio hondakinak jaso eta birziklapenerako bideratzea.

-Eguarbitza babesgunea izendatu eta inguruak egokitzea.

-Herrian egon ziren errotak ezagutu eta ahal direnak errekupe-ratzea.

Elkartea honela osotu dute: Lehendakaria Iker Irazabal, Lehendakari ordezkoa Benito Cam-


pos, Idazkaria Rebeka Ubera, eta 3 bozeramaile M^a Karmen Larrañaga, Iban Retolatza eta M^a Karmen Larrañaga eta diruzaina Tomas Agote. Hala ere talde honetan parte hartzea nahi duenak, izena eman liburutegian edo goian aipatzen direnekin harremanetan jarrita.

60. hamarkadako jaia eta Nikaraguako eguna Gaztetxean

Elgetako Gaztetxeok apirilera-ko zenbait ekintza antolatu dituzte. Martxoak 31n Mozanbikera diru laguntza bidaltzeko asmoz, 60 hamarkadako jaia antolatu dute. Gaueko 23:00etatik aurrera, musika estilo ezberdinak abestuko dituen BANJA LUKA taldearen emanaldia izango dugu "hot latin music" jorrazten duen taldea da. Jendeari Gaztetxera 60. hamarkadako jantziekin mozorrotuta etortzeko deia egin nahi diete Gaztetxeok. Apirilak 2an, domeka, arratsaldeko 17:30etatik aurrera Txiapas-eko dokumentala eskainiko da. Apirilak 14an, Nikaraguarekin elkartasun eguna izango da. Nikaraguako diapositiba emanaldia, hango erara afaria, talde kubatar bat... Apirilak 16an, arratsaldeko 17etan haurrentzako pelikula izango da.

Txirrista berriak

Martxo erdialdetik txirrista berriak jarri dituzte Polikiroldegi ondoko zelaian. Txirrista hauek Kutxaren bidez lortu ditu Udaletxeak. Hori horrela izanik, txirristak jartzeak ez dute diru kosturik izan. Txirristak jartzeko lanak ez daude oraindik amaituta. Hala ere, haurrek denbora aurretik estreinatu dituzte txirrista berriok. Herriko haurrek badute aurrerantzean beraien jolasak egiteko beste txoko interesgarri bat. Udaletxearen asmoa ingurua lautzea da eta piñu azalarekin txirrista ingurua txukuntzea.



Egurrezko txirrista berriak Polikiroldegi ondoan jarri dira.

GRUPO
IFA Produkturik onenak,
prezio onenean

Tel: 76 80 98.

ALDI

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g. 20690 ELGETA
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

Nikaraguarekin elkartasun eguna Gaztetxean

Komite Internazionalistako brigadista kanpainari hasiera emateko apirilaren 14an Nikaraguako diapositibak, Nikaraguako janak (gallopinto, mangoak) eta nola ez, hango Rona izango ditugu Elgetako Gaztetxean. Besteak beste, Soneros de Changüis talde kubatarra ere izango da gure artean gaua berotzeko.

Jai giroa izango duen eguna antolatu da Gaztetxean. Jaiak, berriz, izango du elkartasun kutsua ere. Bittor Gallastegi, Gaizka Bolinaga eta Iban Arantzabalek diapositiba emanaldia emango dute Gaztetxean. Gehienok jakingo duzuen moduan udan Nikaraguan egon ziren brigadista lanetan eta esperientzia hori kontatzeko irrikitan daude. 900 diapositibatik gora dituzte erakusteko eta horiek ikusten laguntzeko Flor de Caña rona ere lagun izango dugula ziurtatu dute.

Brigadetako kanpaina zabalik

Aurten, brigadetarako kanpaina apirilaren 5ean hasi eta maiatzaren 15ean amaituko da eta horren berri zehatzagoa ere jaso ahal izango da Gaztetxean. Jakin badakigu brigadista joan ahal izango den herrialdeen zerrenda: Nikaragua, Kolonia, Mexikokoa iazkoen antzerakoak izango dira. Guatemalako brigada ez da aterako; Kubako komisioko jendea brigadari aldaketan egin nahian dabil eta horretarako



Bittor ezkerrean Iban eta Gaizka eskuinean zutik, eta Markos Gabilondo eta Iñigo Igartza bergararrak (behean) izan ziren Nikaraguan. Ezkerrean, eraikitako etxeak.

Komite Internazionalistako kide bat Kubara joango da hau prestatzeko asmoarekin. Brasil eta ekuador ere lana egiteko moduko herriak direla hausnartu dute Komite internazionalistakoek. Kontaktatuak, telefonoak edo informazioaren bat gura izanez gero apirilaren 14an Gaztetxera hurbil zaitezketek.

Elkartasun jaiaren nondik norakoa

Elkartasun jaiaren hasiera arratsaldeko 20:00etan izango da. Ordu horretan ikusi ahal izango dira Nikaraguako brigadatik ekarritako diapositibak. Diapositibetan, batetik, hango bizimodua, ohitu-

rak, izateko modua... erakutsiko dira; bestetik, han egondako hiru elgetarrek eta beraiekin joandako lagunak izandako esperientziak, anekdotak... kontatuko dituzte.

Diapositiba pila bat dira eta beraz, atsedena bat egingo da 21:15ak aldera, Nikaraguako eran, gallopintoa zer den probatu eta hango erara prestatutako jakiak dastatzeko. Hori izango da momentua Flor de Caña Ron piska bat edan eta beste diapositiba ekinaldi bat ikusteko. Bigarren tanda honetan ikusiko ahal izango dira etxebizitzak egiten nola jardun duten, eta dena ez dela lana izan ere konpro-

batuko ahal izango dugu. Nikaraguako turismo guneak ere erakutsiko dizkigute Gaizka, Iban eta Bittorrek.

Gauarekin batera, han inguruko iraultza-musika eta dantzan egiteko moduko musikaren ordua etorriko da. Gainera, gauak amaiera ona izan dezan, Kubako musika entzun ahal izango da zuzenean, gaueko 23:00ak aldean. Talde Kubatar batek egingo digu bere lehenengo diskaren aurkezpena, Soneros de Changüi-sek, hain zuzen ere. Estatu mailan bira bat egien hasteko dira eta guk ere soinu alai eta bero horiek ikusi eta dantzatzeko aukera izango dugu.

Aukera aparta benetan!!!!!! Gaizkak, Ibanek eta Bittorrek gonbitea luzatu dute apirilaren 14rako. Herri guztia dago gonbidatua Ron txupito batera eta zerbaít gehiagora ere.

Aurten, brigadetarako kanpaina apirilaren 5ean hasi eta maiatzaren 15ean amaituko da eta horren berri zehatzagoa ere jaso ahal izango da Gaztetxean

Jaixetako billerak hasi dira. Aldaketan bat egon bihar danik uste dozu? Tanborradak parte hartzeko asmoik badakazu?




Fabier Aranzabal
(36 urte) Bihargiña

Uste dot hasiera-hasieratik Udaletxiak askatasun gehixau emon biharra dakala, eta inizatibia dakan jente gaztai laga biharko lotzakela lan pixkat egitten. Gure kuadrillia hor zebillenian geuriak pasautakuak gara eta asunto horrena pixkat pasau egitten dot. Tanborradiana txorrada bat pentsatzen jata.

Nik uste dot aldatzia biharrezkua dala, azkenengo urtietako jaixak oso bajuak izan dira lehenguekin konparauta. Tanborradan parte hartzeko asmuia badakat, honezkero apuntaua egongo naiz.

Garbiñe Aranzabal
(40 urte) Bihargiña



Txaki Gorostiza
(40 urte) Bihargiña

Ez dot uste aldaketa derrigorrez egiñ bihar danik, nik esaterako, tragotxo batzuk hartu eta etxera juaten naiz orduan ez dosta hainbeste eragiten baiña gauzak hoberako baldin badia, hobeto ibiltzen danandako.



Amaia Arantzetza
(37 urte) Bihargiña

Berritzeko eta hobetzeko biharra dagola uste dot argi dagola. Uste dot jentia oso asmo honekin dabillega lanian gauzak hobetzeko asmuakin. Umetan tanborradan parte hartutakua naiz baiña oindio ez dot pentsau oingo tanborradan parte hartuko doten

Nik uste dot gauza guztiekin moduan noizian behin aldatu egin bihar dala. Neretzako danok jakin biharko giñuke zer dan jaixak antolatzen ibiltzia eta horretarako noizian behin antolatzaillik aldatu biharra dago. Lagundu neinke danborradan baiña parte hartu ez.

Antoni Telleria
(77 urte) Babilaua



Gauzak berritzen hobera juatia oso garrantzitsua dala uste dot. Neretzako jentia asko dakaz eta horrekin gauzak asko aldatu leikez. Tanborradian ideia oso ona pentsatzen jata eta seguru parte hartuko dotela.

Aitor Arantzetza
(40 urte) Bihargiña



Kartetan jokatzeko giro egokia

Tel: 768093

Kopa bat

Patxi Taberna

Aintzane denda

zugandik gertu behar duzun beste

Domingo Iturbe 4-behea Tel: 943 768297

ARIES: Ariesetako batenbaten urtebetzia pasauko zuan/zonan, zenbat kafe eta pastel ordaintzia tokau jak/jan?

TAURUS: Pentsatzen dokena/donana esaten dok/don, hala bestiek esaten debena errepikau bihar dok/don, iñoiz heure kabuz pentsatzen hasiko haiz ala zer?

GEMINI: Ondo jaok/jaon noizian behin gizurren bat edo beste esatia baiña beti igual ibiltzia be!!

CANCER: Noizian behin mendira buelta egiñ biharko huan/hunan beti taberna zuluana egon biharrian.

LEO: Maitasunian ez ei dok/don sinisten baiña zelana sinistuko dok/don sekula ez bahaiz ahalegindu?

VIRGO: Adiskide izateko, norberak jasotziaz aparte noizian behin emon be egiñ bihar jok/jon.

LIBRA: Hori dok/don aurpegi eskasa hori! Gabian lo egiñ bihar dok/don, gabia horretarako egiñda jaok/jaon.

SCORPIUS: Bizikleta bat, motxila, lagun onak eta denbora libriakin nahikua dok/don buelta bat emoteko.

SAGITARIUS: Hoolliboodeko izarra emoten dok/don hire begietako disdira hori ikusitta; kalia pastzian be argixa egitten dok/don.

CAPRICORNIUS: Bixkor eta ondo egaran bakar-bakarrik txorixek egitten juek/jone egaran. Pazientzia erabiltzeko repartidu zuan/zonan.

ACUARIUS: Aquarius: Oso hillabete aberatsa izango dozu. Kontuz!!!!!! Udaberri honetan ligatzia tokatzen jatzu, ZORIONAK!!

PISCIS: Zer dala ta halako tristuria? Udabarrizan gaozak/gaonaz eta hi, mengel-mengel.

Rosario Agirre (54 urte) Etxekoandria

Elgetako zein kaletan biziko ziñake? Plazan.

Baserriko jenerua ala dendakua? Bixak.

Aste Santua elizarako ala oporretarako? Aste Santuan, oporretarako ez behintzat, elizarako.

Telebistako programa bat? Goenkale, beti gustau izan jata.

Igande arratsalderako plan bat? Kafetxon bat hartu eta etxian egotia.

Etxe ingurua lantegiekin ala gabe? Ez dosta inporta.

Zenbat urtekin ezkondu ziñan? 24 urtekin.

Kiroliek gustokoena? Pelotia.

Barruko erropak koloreta-kuak ala zurixak? Neretako zurixak.

Noiz egin dozu azkenengo aldiz dantzan Elgetako plazan? Jaixetan, baiña igual oin dala 15 urte.


Zerk jartzen zaittu sutan? Esan gauza bat eta kasurik ez egittiak.

Gutxien gustatzen jatzun etxeko lanen bat? Plantxia.

Oporretarako leku bat? Asturias aldia.

Goenkaleko "Maria Luisa" ala "Rociito"? Eta, "Josemari" ala "Konde Lekio"? Maria Luisa eta Josemari.

Amama izateko asmoik badakazu? Oin behintzat ez.
Zeiñi egingo zontzake jentrebista bat? Ikatzarreko Mikeli, oso sinpatikua da eta.



Berezitasuna:
Buztana.
Pintxo gozoak
otartekoak.



Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak
Etxaurreak

Sukaldeak
Komunak



Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

Lehiaketa

Aurrekuan ez zeban inok eruan kamisetaik, baiña orainguan bai. Hau kantarixau oso famosua egitten dago gure artian eta gaiñera merezitta dauka. Mutil jator honen izena Mikel Urdangarin da eta halaxe erantzun dau Aitor Kortazar Arantzetak be. Seguru gare beran kanturen bat edo beste be jakingo dabela. Asko ez dala Gaztetxian ikusteko aukeria izan giñuan eta sekulako kontzertua emon zeban Urdangariñek. Ia laster baten berriro ikusteko moduan garen.

Baiña guk kamisetak erregalatzen jarraitzia gura dogu eta kantarixak asmatzen oso fiñ ibiltzen zariela eta, berriro be antzerako zeozer eskatuko dotsuegu. Zeintzuk dia honek kantarixok. Pista moduan, esan, gurekiñ afaltzera etorriko diala laster.

Zure erantzuna badakizu nora bialdu. Goibekokale aldizkarixa, Salvador 2, Kultura Etxia. Gura izan ezkeru, gure e-posta: goibeko@topagunea.com



Jgorren Komikia

<p>AMATXO UTZIKO AL DIDAZU GOIBEKOKA- LEKO AFA- RIRA JOKATE?</p>	<p>...MMM... ZER OS- PATZEN DU TE BA?</p>	<p>0, 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25, 26, 27, 28, 29, 30, 31, 32, 33, 34, 35, 36, 37, 38, 39, 40, 41, 42, 43, 44, 45, 46, 47, 48, 49, 50, 51, 52, 53, 54 eta 55 ALE!</p>
--	---	--

INMOBILIARIEN GEHIGARRIA

Honakoa da Eibarko ...eta kitto!, Elgetako Goibekokale, Ermuko Drogeteniturrri eta Soraluzeko Pil pilean aldizkariok hilabete honetan argitaratu dugun INMOBILIARIEN GEHIGARRIA. Eibar, Ermua, Elgeta, Mallabia, Soraluze eta kostaldean banatuko dugu ale berezi hau.

11.100 ale kaleratuko dira, 35.000 irakurle ingururendako.

3. zenbakia. 2000ko martxoa

Publizista: Mertxe Agirre. Diseinua eta maketazioa: Koldo Mitxelena Zumarán.

Tirada: 11.100 ale. Tel. 943 20 67 76. Faxa. 943 20 67 76

ETXEAK

zure esku

...eta kitto!
drogeteniturrri
goibekokale
pil pilean

EUKI Inmobiliaria.

EIBAR

Toribio Etxebarria 1

Tel. 943 20 03 58

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Ifar kale	Eskaparate handiak dituzten lokal komertzialak salgai.	Galdetu
ELGOIBAR	Arriaga industrialdea	Pabilioi industrial berriak salgai. 2.300 m ² (banatzeko moduan).	Galdetu
EIBAR	Amañako dorreak	5 logela, 2 komun, egongela/jangela, sukaldea eta despentsa. 130 m ²	Galdetu
EIBAR	P. Arosa eta Murrategi	Buhardilak salgai.	Galdetu
EIBAR	Isasi	2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 60 m ² . berritzeko.	Galdetu
ELGETA		Garajedun etxebizitza berriak.	Galdetu

GARMENDIA Inmobiliaria.

EIBAR

San Juan 9, behea

Tel. 943 20 34 13

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Estaziño kalea	3 logela, 2 egongela, sukaldea eta komuna. 117m ² .	Galdetu
EIBAR	Polonia Etxeberria	3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara.	Galdetu
EIBAR	Amañako dorreak	2 logela, egongela eta sukaldea.	Galdetu
EIBAR	Urki behea	3 log., egong., suk., komuna eta ganbara. Berriztuta.	Galdetu
EIBAR	Argatzako jardinak	Lokala (135 m ²). Berriztuta. Aukera ezinhobea.	Galdetu
TORREVIEJA ETA NOJAN	Pisuak salgai eta	ELGOIBARREN baserria salgai.	Galdetu

CARLOS VEGA Inmobiliaria.

EIBAR

San Juan 1

Tel. 943 70 16 57

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Ego-gain	305 m ² -ko lokala (beheko solairua) eta 511 m ² -ko solairuartekoa.	Galdetu
EIBAR	Ubitxa	Solairuartekoa salgai. 490 m ² .	Galdetu

IBAI-ONDO Inmobiliaria.
EIBAR**Bidebarrieta 60**
Tel. 943 20 12 13

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Miraflores	Baserría terrenoarekin.	Galdetu
EIBAR	Barrena 10	3 logela, egongela, sukaldea, komuna.	Galdetu
EIBAR	Urkizu (Orbeako dorreak)	3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun.	Galdetu
EIBAR	Barrena 44	2 logela, egongela, sukaldea eta komuna.	Galdetu
EIBAR	Bittor Sarasketa 8	4 logela, egongela, sukaldea, komuna.	Galdetu
EIBAR	Arragueta 12	3 logela, egongela, sukaldea, komuna.	Galdetu
EIBAR	Jardineta 33	2 logela, egongela, sukaldea, komuna, despentsa.	Galdetu
EIBAR	Txonta 13	2 logela, egongela, sukaldea, komuna.	Galdetu
EIBAR	Txonta 13	2 log., egong., sukaldea, komuna, despentsa, terraza.	Galdetu
EIBAR	Errebal 23, 1.	4 logela, sukaldea/jangela, egongela/jangela, 2 komun.	Galdetu
EIBAR	Errebal 23, 3.	4 logela, sukaldea/jangela, egongela/jangela, 2 komun.	Galdetu
EIBAR	Estaziño 10	4 logela, egongela, sukaldea, komuna, ganbara.	Galdetu
NOJA		Apartamentua garajearekin.	Galdetu
MUTRIKU	Iriagirre	3 logela, egongela, sukaldea, komuna.	Galdetu
AJO		Txaletak. Prezio interesgarria.	Galdetu
EIBAR	Otaola	Lokala (175 m ²). Alokairuan.	Galdetu
EIBAR	Asua-erreka	Lokala, prezio izugarria.	Galdetu
EIBAR	Legarre	Lokal komertziala. Antzinako modeloa. Oso prezio ona.	Galdetu
ERMUA		Lokal komertziala (330 m ²), leku ezinhobean.	Galdetu
EIBAR	Urkizu (Orbeako dorreak)	Lokal komertziala oso prezio onean.	Galdetu

EDER Inmobiliaria.
ZARAUTZ**Trinidad 1, behea**
Tel. 943 13 13 00

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
ZUMAIA	Etxezarreta plaza	3 log., egongela, ganbara. Bista ederrak.	29.000.000
ZARAUTZ	Hondartza parean	Apartamentua. 14 m ² ko terraza.	29.500.000
ZARAUTZ	Golf-aren inguruan	3 log., egong. Terrazak ipar eta hegora, ganbara, garajea. bista ederrak.	28.000.000
ZARAUTZ	Azken portu	3 logela, egongela, terraza.	29.000.000
ZARAUTZ	Nafarroa kalea	4 logela, egongela. Ekialdera eta terraza mendebaldera.	42.000.000
ZARAUTZ	Erdialdean	3 logela, egongela. Iparra eta hegoa.	31.000.000

AZKEN PORTU Inmobiliaria.
ZARAUTZ

Urdaneta 1
Tel. 943 83 50 00

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
ZARAUTZ	Azken Portu	3 logela, bainugela, komuna, sukaldea, egongela.	29.000.000
ZARAUTZ	Erdialdean	3 logela, komuna, sukaldea, egongela, berriztuta.	31.000.000
GETARIA		3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, trasteroa.	20.500.000
ZARAUTZ	Zelai ondo	3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bodega.	28.000.000
ZARAUTZ	Gipuzkoa kalea	3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela. Estreinatzeko.	49.000.000
ZARAUTZ	Zuhaizti	3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, itsasora begira. Garaje bikoitza.	57.000.000

LARRAGEST Inmobiliaria.
EIBAR

F. Calbeton 22-24
Tel. 943 20 00 12

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
MUTRIKU	Magdalena kalea	3 log., egong., 2 komun, suk., duplex-a izan daiteke. Aukera ona.	Galdetu
EIBAR	Bista Eder	4 logela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa.	Galdetu
EIBAR	Polonia Etxeberria	2 log., egong., suk., komuna. Kalefakzioa, eguzkitsua, berriztuta.	Galdetu
EIBAR	J.A. Iturrioz	2 logela, egongela, sukaldea, komuna. Terraza. Aukera ona.	Galdetu
EIBAR	Urki	3 log., egong., suk., bainug., komuna, gasa suk., kanpora, sartzeko moduan.	Galdetu
EIBAR		Tamainu askotako lokalak salgai eta alokairuan	Galdetu

**E
L
G
E
T
A**

ERAIKUNTZAREN
2. fasea

- ➔ Etxebizitza bikainak
- ➔ Lokalak
- ➔ Garajeak

INFORMAZIOA: 943 76 11 23

U.T.E. URIBURU
Construcciones Mauricio Arregui, S.A.
Construcciones Sukia, S.A.

Larragest
AGENTZIA INMOBILIARIOA  (353)

*hiru belaunaldi
merkatu inmobiliarioaren
zerbitzura*

Fermin Calbeton, 22-24 behea Tel. 943 20 00 12
20600 EIBAR

EUKi  (323)

ETXEAK ETA GARAJEAK SALGAI

Elgetan (San Roke kalean)

T. Etxebarria 1 -EIBAR- Tfnoa. 943 20 03 58

JUARISTI Inmobiliaria.

EIBAR

R. JUARISTI API

Arragueta 2-bis B

Tel. 943 20 08 60

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Arragueta	2 logela, sukalde/jangela eta komuna. Berriztuta.	Galdetu
EIBAR	J.A. Mogel	3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara.	Galdetu
EIBAR	Plaza Barria	4 log., egong., suk., bainug., komuna, despentsa. kalefakz.	Galdetu
EIBAR	Barakaldo	3 log., egong., suk., komuna. Kalefakzioa. Garajea.	Galdetu
EIBAR	Paziano Arosa	2 log., egong., suk., komuna, ganbara. Berriztuta.	Galdetu
EIBAR	Txonta	2 logela, egongela, sukaldea eta komuna.	8.000.000
EIBAR	Romualdo Galdos	3 logela, egongela, sukaldea eta komuna.	Galdetu
EIBAR	Barrena	Buhardila erako etxea.	4.500.000
ERMUA	Gipuzkoa etorbidea	2 logela, egongela, sukaldea eta komuna.	Galdetu
ERMUA	Gipuzkoa etorbidea	Lokal komertziala. 280m ² .	13.500.000
ERMUA	Gipuzkoa etorbidea	Lokal komertziala. 758 m ² .	Galdetu
EIBAR	Otaola hiribidea	Lokal industrialia. 600 m ² . Instalazioarekin.	Galdetu
EIBAR	Zuloagatarren	Lokal komertziala. 320 m ² .	Galdetu



INMOBILIARIEN GEHIGARRIA

35.000 irakurle
11.100 ale

Lau aldizkarion elkarlana
zuen buzoietan

DROGETENITTURRI

Pil
by ear

Goibek
kale





Aisialdiko hezitzaileak oso pozik agertu dira ekintzek umeengan izan duten harrerarengatik.

Nor zen Domingo Iturbe?

Zer egin zuen? Nondik nora ibili zen? Zer egin zuen kale batek bere izena izaateko? Zuetako askok antzerako hainbat galdera egingo diozue zeuon buruari. Goibekokalek, Jose Luis apaizarengana jo du Domingo Iturbe bera eta Domingo Iturbe Fundazioaren inguruan zerbait gehiago jakitzeko asmotan. Horretaz gain, otsailetik aisialdiko hezitzaile moduan dabiltzan gazteekin ere egon nahi izan dugu beraien nondik-norakoen berri izateko.

Domingo Iturbe eta Altube Elgetan jaioa 1833an, luzaro ibilia zen Ameriketa aldean. Azken urteak jaioterrira itzuli eta bertan bizi nahi izan zituen.

Hemen, "Haurrentzako Jesusen Bihotzaren Kristau Eskolak" sortu zituen.

Horrela, 1911ko azaroaren 30ean, lehenengo estatutuak izan ziren idatziak eta hurrengo

urtearen hasieran jarri zen martxan Fundazioa.

Bere azken gogoa izan zen orduko Gasteizko Gotzaina Fundazioko ugazaba edo patroin izendatzea. Batzorde gainbegiralea Parrokiako bikario eta apaiz laguntzailek, bertako bi familiburu eta Udalgizon batek osatu behar zuten.

Garai hartan zuen helburua, Elgetako

haur eta gaztetxoei lehen mailako giza eta erlijio heziketa doan ematea zen. Gainera, maisuetako batek behintzat euskalduna izan behar zuen.

Zeregin hau beren gain hartu zuten lehendik jadanik irakasuntzan ziharduten La Salleko Anaiak (1912-1927). Ondoren, Viatoristak jarraitu zieten eginkizun horretan (1929-1936). Gerra ondoren, maisu

sekularrek ekin zieten (1939-1955). Maisuak mantentzeko nahiko errentarik ez zegoenez, ordutik aurrera "Hijas de la Unión Apostólica" izeneko monjen komunitatea arduratu zen neskatilen heziketaz (1955-1965). Hauei, Madalen Ospitaletxean ematen zitzairen eskola (gaur egun desagertua hango kaperarekin batera). Azkenik, Ikastola gisa funtzionatu izan du Elgetako Herri eskola sor-

tu zen arte 1995ean.

Gaur egungo egoera

1998ko irailaren 8an estatutu berriak onartuak eta inskribatuak izan ziren Euskal Autonomia Erki-degoko Fundazioen Erregistroan.

Fundazioaren helburu orokorra, behin egokitzapena egin eta gero, honoko hau da:

"Bereziki bertako haur, gaztetxo eta gazteen giza eta kristau hezkuntza (Euskal Autonomia Erki-degokoei ere zabalik) sustatu, garatu, sostengatu, finantzatu, etab. egitea"

Helburu zehatza-
goak, berriz, hauek aipa daitezke:

1.- Herri-Eskolako haur-
ren gurasoek duten eskubidea begiratzea,

seme-alabei erlijio- hezi-
keta eman diezaien, Gotzaindegiko ildoan arabe-
ra.

2.- Haurren hezkuntza
kateketikoa.

3.- Gaztetxoen heziketa
giza eta kristau balioen
alorrean, aisialdiko ekin-
tzen pedagogia erabiliz.

4.- Kolonia, udaleku eta
aterpe-antolamenduen

eskaintza.

Patronatuaren eraketa

Donostiako Gotzaina da
Fundazioaren Patronin eta
Buru. Honen ordezkari
izendatua du Elgetako
Parrokiako bikarioa.

Aholku-Batzor-
deari dagokio Patrona-
tuaren ekinbideen jarrai-
pena. Delako batzordea,
bikarioak, Elgetako Uda-



Izaskun, Esti, Itsaso eta Itxarok orainarteko eta etorkizunean egingo dituzten ekintzen berri eman digute.

**Mende hasieran fundazioak zuen
helburua Elgetako haur eta
gaztetxoei lehen mailako giza
eta erlijio heziketa doan ematea
zen. Gainera, maisuetako batek
behinik behin euskalduna izan
behar zuen**

Haurrekin lan egite hri

Otsaitetik, konfirmaziotik sortutako lantalde bax um

"Apaizak Lezoko begirale talde batekin elkartu gintuen Elosun. Haiek, gauzak nola egin, hala nola, dirua nondik lortu, ekintzak nola antolatu... erakutsi ziguten. Egia esan, hasiera batean ez geneukan inolako ekintzarik egiteko asmorik. Elkarrizketa hark ordea animatu egin gintuen". Itxaro Elortzaren hitzak dira. Itxarok aurrean du lehendabiziko urtea konfirmazioan. Bera da Izaskun Oianguren, Igor Apraiz, Aitor Txintxurreta eta Esti Askasibarrekin batera denbora librearen bultzatzaileetako bat. Hauekin batera, kolaborazio lanetan, bigarren urteko Olatz Txintxurreta, Iban Barrigon, Inma Urien eta Itsaso Egizabal ari dira. Azken honek, Itsasok, hasieran aisialdiak zituen helburuen berri ematen digu: "Helburua berez umeen artean galduak dauden baloreak berreskuratzearena zen. Behin Iñaki


Ugarteburu eton zitz...
ruetan gazteak daul...
rapasarik esanez balon...
tzeko aukera pita z...
zen. Hori zen siera...
ideia".

Nahiz eta siera...
baloreak barnera...
tikan ez da horrek...
bultzatzen ere lakun...
digun bezala, "ure h...
sia umeak distraeta d...
horrenbeste sakatu ga...

Aisialdiak eta...
an behin ordutez el...
gazte hauek. Behin jo...
tzen dituzte. Ahagin b...
dute betidanik izagu...
jokoak alde baten utz...
prestatzen. Orainarte...
kotik ordaindu dituzte


HAIZEA

TABERNA



giro atsegina
lagunartean
egoteko.

Tel: 768256



Jesús Mari Montiel
**ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK**
Artekale 3.

Mo: 970773950 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN**

laren ordezkari batek eta Patronatuak izendaturiko beste bi kidek osatzen dute. Azken bi hauetako batek Herri-Eskolako haur baten guraso behar-ko du izan.

Aisialdiko ekintza hezi-tailearen eskaintza

Iturbe Fundazioaren mar-koan Parrokiako Sendotza taldeko gazteek beren zerbitzua eskaintzen die 6

urtetik 15 urtera arteko neska-mutikoei. Otsailaren 12an hasita ekaina artean, zapatu batean bai eta bestean ez, 4retatik 6etara, jardungo dira Patronatuko areto eta frontoi zaharrea. Bi taldetan sailkatuko dira haurrak eta gaztetxoak 6-10 urtekoak eta 11-15 urtekoak.

Ekintza horien helburua eta izpiritua hauxe da:

Dibertituz ikasi:
elkarren artean ondo eramaten, entzuten...
ardurak eta zerbitzuak elkarbanatzen...
inor bazter utzi gabe elkar osatzen...

Herri berreskuratu nahian

...baxumeen aisialdirako ekintzak bultzatzen dihardu


torizitzaigun astebu-
 k edaukatela denbo-
 nez balore horiek lan-
 pita zela pentsatu
 n sieran geneukan

etasierako helburua
 erazarena izan, prak-
 rrekorik egiten ez eta
 e lakunek adierazten
 "re helburu nagu-
 itztea da, baloreetan
 akutu gabe".

diastatzearen aste-
 utez elkartzen dira
 Ben jokoak presta-
 Ahagin berezia egiten
 ik azagutu ditugun
 bata utzi eta berriak
 raiarte euren poltsi-
 u dutze material gas-

tuak eta ez zitzaien gaizki etorriko gastu horiek ordaintzeko laguntza txikiren bat, "Astean behin elkartzen gara jokoak prestatzeko. Ez dira betiko jokoak, aldatzen saiatzen gara. Jokoak prestatu ondoren hamabostero umeekin elkartzen gara. Orain arte behar izan dugun dirua gure poltsikotik ipini behar izan dugu. Dirua lortuz gero eskulanak egingo ditugu".

Aisialdiak izan duen erantzunagatik oso pozik agertu dira. Uste baino jende gehiago animatu dela diozku Esti Askasibarrek. "Hasieran espero genituen baino ume gehiago etortzen da. Momentuan 35 haur ingururekin gabiltza. Denbora librea hamabost urtera bitartekoei luzatua dago. Beraz, norbaitek nahi izanez gero etor dadila inongo arazorik gabe".



XX. mende hasieran sortu zen Domingo Iturbe fundazioa.

EROSLE

M. Asun Agirre
 Salbador 26. Tel: 768190

Tel: 76 81 31
 M^a Jesus
 Arrazola
VIVO
 Janari
 denda

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
 Tel: 768050-789031 Faxa: 768243
TAPEM, S.A.
Trokelak eta estanzioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

Aspaldian izan dugun ETB kantxa txapelketa irekiena izango da aurtengoa

Elgetako lau eta erdiko txapelketaren XXV. izango da aurtengoa. Zilarrezko ezteiak beteko ditu 1969an lehendabizikoz jokatu zenetik. Urte hartatik hona txapelketak geraldia izan ditu baina azken hamabost urteak gutxi gorabehera etenik gabe jokatu dira Juan Luis Uberaren gidaritzapean.

- Aurten zergatik ez du Euskal Herriko Txapelketa izena eramango?

Euskadiko Federazioak baldintza batzuk jarri dizkigu, baina guk ez ditugu onartu. Horregatik txapelketak "ETB kantxa saria" izena hartuko du berriz.

- Zeintzuk ikusten dituzu txapelketa irabazteko gai?

Aurten hori esatea oso zaila da. Nik ez nuke inor aipatuko. Maila handiko pilotariak daude aurten ere. Lurraldeka, Gipuzkotatik: Saralegi, Castellanos, zergatik ez Elgetar bat? Bizkaitik: Leiza iazko irabazlea, Albizuri, Kertxu, Erauskin... Nafarroatik: Larraia, Aspiroz, Mendiluze... Arabatik Mikel aipatuko nuke.

- Zeintzuk izango dira Elgetar pilotariak?

Kadeteetan Jon Irazabal daukagu bakarrik, gero 23 urtez azpikoetan Arantzeta, Peñalver, Ubera II, eta Arrieta Soraluzekoa den arren gurekin entre-


natzen duena.

- Beste herriren batera zabalduko al da txapelketa?

Bai iaz bezala, baina oraingoan Gipuzkoan bakarrik. Eskariak Aretxabaleta, Eskoriatza, Arrasate eta Oñatitik jaso ditut. Beste egunean nire arridurarako Aizarnazabalgo alkateak ihardunaldi bat bere herrira eramateko ere eskatu zidan.

- Ekitaldi berezirik presatu al duzue 25 urteak ospatzeko?

Bueno, polita izango zen 25 txapelketetako irabazleekin irabazi dutenekin afari edo bazkari bat egitea. Badakit guztiakin egitea zaila izango dela, baina batzuk etortzen badira



Txapelketa bikaina antolatu du Ozkarbik aurten ere.

konformatuko ginateke. Errasti, Eugi, Nagore, Beloki, Olaizola I, Berraondo... besteak beste izan dira txapelketako irabazletako batzuk.

Euskal Herriko XXXI. hiru txirlo txapelketako bigarren ihardunaldia Elgetan

Gipuzkoako XXXI. hiru txirlo txapelketak Elgetako bolatokian egin zuen geraldia, aste bete lehenago Zabaletan egin zuen bezala. 71 bolarik parte hartu zuten tiraldian, Asola Berriko Juan Luis Santamariak irabazi zuen. Hiru tiralditan 9 txirlo bota zituen, beraz, ezin gehiago eskatu. Ihardunaldi hau eta aurrekoa kon-

tuan izanda, bera doa sailkapen nagusian lehendabizi. Elgetako tiraldian bigarren San Miguel taldeko Jose Irusta (6 txirlo) eta 3. eta 4. Pedro Gallastegi eta Bittor Ugarteburu sailkatu ziren seina txirlorekin. Hurrengo tiraldia Floreagan (Azkoitia) izango da Apirilaren batean.

"Estampa" kopara begira

Liga txapelketa lortu ostean Kopa du helburu nagusia "Estampa" k. Oraingo honetan, Ligan ez bezala, kanporaketak izango dira, beraz partidu bat galduz gero agur esan beharko diote txapelketari. Hala ere faborito nagusiak dira orain bi urte irabazitako txapela berreskuratzeko. Aurkari nagusiak Bar Azitain eta Celtic's de Eibar izango dituzte. Azken hauek dira, hain zuzen, elgetarrak Ligan garaitzeko kapaz izan diren bakarrak.



IRAMA
ELEKTRIZITATEA

Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua
tel. mugikorra: 619692336
tel: 789057-768025



Futbitoa: Txapela eta kanpotarrak

lazko txapeldunak eta Durangoko hiru taldeak dira faborito finalerdietarako sailkatzeko

Txapelketako lehen hila-betea bete denean argitzen doaz zein taldeak lehiatuko diren garaipena lortzeko. Lehen txanpa honetan ikusitakoaren arabera faborito nagusia Txapela da. Ihazko txapeldunek orain arte jokatuako parti-

da denak irabazi dituzte eta bide bera jarraituz gero beraiek izango dira garaitu beharreko taldea. Hala ere, ez dute lan erraza izango aurten estreinekoz ari diren Kiyon'sek eta Viciosek ere zeresan ugari emango baitute. Hiru tal-

de hauek, Bar El Arcorekin batera, finalerdietan egongo direla dirudi.

Herriko beste hiru taldeek ez dute printzipioz azken txanpan egoteko aukera handirik, nahiz eta ezusteko bat baino

gehiago emango duten. Dena den, etorkizuna ziurtatuta dago Astrapo-truen eskutik. Oraindik gazteak dira baina horrela jarraituz gero denbora gutxi barru txapela lortzeko moduan izango dira.

Xabier Arangurenak ondo hasi du txirrindularitza denboraldia


Euskal Herriko itzulia Asentzio gainera pasatuko da apirilaren 3an

Indartsu hasi du Xabierrek jubenetan izango duen bigarren denboraldia. Lasterketa guztietan aurrean ibili da eta aurpegi emanek gainera. Lehenengo lasterketa Eibarren izan zuen eta 11. postuan amaitu zuen irabazlearengatik denbora gutxira. Trabakua eta Areitioko gainak zituzten gairak beharreko mendeak. Urrengo astean Arrasate eta Azpeitiako lasterketan ere maila ona erakutsi zuen. Arrasatekoan 12. amaitu zuen irabazlearengandik 2 minututara. Kanpazarren iheslariekin bat egiteko eraso jo ondoren, seiga-

ren pasatu zen Elgetako kaleetatik. Azkenean helmugara iritsi orduko denek bat egin zuten. Igandean berriz Azpeitiara joan zitzaigun. Hemen ere oso ondo, 13. amaitu zuen eta. Xabierrek esan zigunez oraindik ez dago bere sasoirik onenean. Beraz, orain izan dituen emaitzak ikusita ez zen harrizkoa izango hurrengo lasterketan emaitza hobeak lortzea.

Euskal Herriko itzulia

Oñatin hasiko den aurten itzuliak, Asentzio izango du lehendabiziko etaparen azken mendate-



Xabier, iaz Azpeiti inguruko maldak igotzen.

tzat. Gaina 112. km. an dago helmugatik 18km.ra. Arratsaldeko 16:50tan pasako dira txirrindulariak bertatik. Angiozartik gorako aldapek erabaki dezakete

egun honetako irabazlea. Gain hau igarota txirrindulariak Oñatin izango dute helmuga. Orduan jakingo dugu nor izango den lasterketako lehendabiziko liderra.

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA



Dakixenak badaki, ez dakixenak baleki...

Kanpokua beti izaten da hobia. Keixak be, aldemenekuaq etxeakuaq baiño hobiaq; baiña norberanaka falta diranian harek bai keixak! Hori da pasatzen jakuna Elgetako berbetiak. Ez dakitt modia dan, inguruko hizkuntzen prestijua (bai erderia, bai batuarena) edo bakotxak dakixenaren barri erakustia. Itxuria danez, dotoriaua da esatia bukatu edo korrika egiñ amaittu edo antxintxiketan egin baiño; dotoriaua partiduari buruz berba egin partiduan gaiñian berba egiñ baiño; ostirala edo ulertu, barikua edo aittu baiño...

Ez da gauzia batua eta norberaren ber-

betia alkarren kontra jartzia. Nere ustetan hori kontuori sobran dago. Hamen kontua da, bestiak beste, noiz bata, noiz bestia; hau da, nun, zein momentutan eta zeifekin berba egiñ edo eskribidu bihar dogun batuan edo herriko berbetan. Ez dakit zer pentsatzen jatzuen elgetarrok elgetarrekin holan berba egittia: Aizak/n atera ezak/n lukainka pintxo ederra txuri batekin; herriko edozein txartel edo aldizkarixan holako gauzaren bat irakurtzia: orok so egin beharko lioke gauza pertxent horri. Euskeria ona izango da ziurrenik, baiña bakotxak bere lekua daka.

Hizkuntza estandarrek, batuak gure kasuan, nazio espaziu hartzen dabe esparrutat; euskalkixak eta azpi-eus-

kalkixak, herrixetako berbetak, berriz, eskualdeko edo herriko esparrua. Kontua da gurian batuak, gure estandarrek, zail dakala espazio hori betetzia (nazio esparru eza, euskaldun kopurua...), eta euskalkixen esparruan sartzen da. Akaso, oingoz, euskalkixak eta azpi-euskalkixak ez direlako gauza zenbait funziño betetzeko, ez dagoelako idazteko araurik ez diralako landu edo dana dalakua.

Herri-berbeta eta batuaren esparruak aukeratu biharko giñukez, eta hori izan da K. Zuazok egin dabena bere azken liburuan, Deba Ibarreko Euskeria. Bertan, Koldok herri-berbetei esparru argi batzuk emoten dotsez: aisialdixa, etxia, familia, lagunartia; eta hurrenguetarako, eskolia,

herri-aldizkari, irrati, telebisiño eta herri-administraziñuan herri-berbetiari lekua egin bihar jakola diño. Hori horrela izanda, batuak nazio mailako funziñua bete bihar ko leuke: batuaren lekua da herrialde guztietan zabaltzen diran egunkari (Gara, Egunkaria, Deia), aldizkari (Argia, Jakin, Ostiela...) irrati, telebista (EITB); herrialde guztietako jentiañdako zabaldua dagozen batzar, bilera eta abar.

Gaiñera nok esan dau amaitu, barikua, neskendako, gure modukuaq, trenian joan da euskera batua ez danik? Euskera batua ez da gauza itxi bat, guk geuk aberastu bihar dogun hizkuntzia da, eta horren aberastunorren iturruxa geure eguneroko berbetia da; Ahalik eta gertuena dan euskeria erabili bihar dogu gure komunikaziño jardueran, bai idatziz, bai ahoz: komunikatibua, bizixa, danok aitzeko modukua.

A. Telleria

Herri-berbeta eta batuaren esparruak aukeratu biharko giñukez, eta hori izan da K. Zuazok egin dabena bere azken liburuan

ELKORO TORLOJU LANTEGIA

DEKOLETAIA ETA
FIJAZIO SISTEMAK

Berrañdokua 2/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxes: 768203

IBAIBA-
RRIAGA
GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA

E
HARATEGIA

A
S
T

San Roke 6
tel: 768168

5.urtean ere gure eskolako gazteak Goibekokale etxe guztietara iristeko lanean

Hau baino momentu hoberik ez daukagu Goibekokaletik beste hainbati moduan gure gazteei ere eskerrak emateko. Jada haurrak edo umeak Goibekokale sortu zeneko garaietan izan ziren. 5. urtebetetze honetan, gazteek Goibekokale banatzerakoan nola antolatzen diren azalduko dizuegu, baliteke norbaitek ez jakitea nola iristen den eta.

Hilebete osoan zehar aldizkariko erredaktoreok poliki-poliki eta ahal denean bakoitzak bere lana burutzen du. Pausoz-pauso aldizkaria osatzen joaten da eta zuzenketak egin ondoren, maketazio lan neketsuak ematen dio amaiera aldizkariaren egituraketari.

Ondorengo pausoa, Oñatin dagoen inprimategira eramatea izaten da. Astia duen norbaitek eramaten du inprimategira hila amaitu baino bizpahiru egun lehenago. Hurrengo hilaren hasierarako eginda izaten dutenez, bertara deitu eta gertu dagoenean bila abiatzea besteik ez da gelditzen. Ordu-r a k o , Mariaelena



Erretratuan hauek agertu arren beste hainbatek ere egiten du isilpeko lan hau.



Taldeetako partaideak orokorrean berdinak mantentzen dira.

aldizkaria helduko den orduaren zain egoten da. Jarraian, helbideak aldizkarietan itsastea izango da.

Gazteak ordurako zita ipinita izaten dute. Liburutegian elkartu eta taldetxo bakoitzak bere kaleko edo guneko aldizkariak hartu eta banaketari hasiera emateko.

Gazte talde bakoitzak bere guneez egunena edo denborarekin hobekien ezagutu duena burutzen du.

Normalean, arratsaldetan egiten dute banaketa. Talde hauetako partaideak orokorrean

berdinak mantentzen dira nahiz eta banakaren bat berriak izan.

Gazte hauek burutzen duten lana oso garrantzitsua izateaz aparte lana asko errazten dute eta merke-merke. Lanaren truke esan beharra dago ez dutela ezer jasotzen, bakar-bakarrik merienda xume bat guztiok batera giro onean egoteko.

Bukatzeko, gazte guztioi esan atea zabalik daudela eta bere laguntza eskeini nahi duenak eman dezala aurrera pausoa.

BESTERIK GABE ESKE-RRAK ETA SEGI HORRELA AURRERANTZEAN!!

ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel:943 768078

Salbador
kalea 1



Kriston lapurretia

Bai, bai, ez da gizurra kriston lapurretia egon da Gipuzkuan iazko urtian. Baiña kriston-kristona, txatxarkerixarik bapez. Ixa hamabost milla milloi. Ondo leittu dozue, 15.000.000.000, (espero daigun zero guztiak ondo ongoingo dirala).

Eta ez da hau nere asmaziña, martxua-ren 18ko "Diario Vasco"-ko lehenengo orrixan

agertzen zan. Eta hor ez da gizurrik agertzen. Baiña, aurrera baiño lehen azaldu daidan lapurretioi zelan izan zan. Lapurretioi pagau bihar diranak ez pagauta egin zebeu giputx batzuk.

Gogor samarra bada pentsatzia gure ingurukuak lapurrak dirala, baiña egixa da, gure inguruko batzuk lapurrak dira eta ez dabe pagatzen pagau biharrekua. Eta guk, gixajuok dana pagau bihar, guk ezin doguz gure diruak ezkutau, eta danak pagau

bihar dittugu. Datorren astian edo, fango gara Bergarara gehixegi kendu doskuena berriro bueltatzeko eskatzera, eta bueltatzen doskuenian pozik jarriko gara. Bittartian beste batzuk pagau ez, eta trankil jarraituko dabe bizitzen.


Aurrera segidu baiño lehen, zintzuak izanda, eta neuk aurretik esanda iñori hori esateko aukeria kenduz, esan bihar dot, neuk be hortik dirutik kobratzen dotela. Baiña nik ezeze, beste maisu, mediku, ertzaiñ,

alkate, diputau eta abar danok be bai, batzuk ofizioz eta beste batzuk lau urterako hortik kobratzen dabe.

Baiña gure soldat ezeze bide, autopista eta antzerakuak be hortik dirutik egitten dira. Eta horrek diruok pagau ez dirala kontuan edukitta horregattik kobrau bihar-ko doskue oinddiokan be autopistia erabiltziagattik eta horregattik egin biharko dabe pagatzekua hurrengo autopistia be. Beraz, badakigu danok, autopistarik pagau gura ez badogu, lapurrok zeintzuk diran zaindu bihar-ko dogu, eta lapurreta gehixagorik egiñ ez daixen ahalegiñak egin biharko dogu.

Gogor samarra bada pentsatzia gure ingurukuak lapurrak dirala, baiña egixa da, gure inguruko batzuk lapurrak dira eta ez dabe pagatzen pagau biharrekua

Jabier Arantzeta



**KONTXI
ARRANDEGIA**

Salbador 5 Tel: 768009

SISTECO

erraminta makina

Juan Luis Berechinaga
Elgeta 20690 Pagatza Parke Ind. 2, B

**Hozkailuak eta
izozkailuak
aire giro-
tua.**



Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxes: 78 90 46

Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

tel: 768273

9
L
E
A
P
A
N
D
E
G
A

M^a
ESTHER

Tel: 76 81 67



**Aldizkari
hauetan
guztietan
Gipuzkoako
foru aldun-
dia izan
dugu
bidela-
gun.**



Gipuzkoako foru aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



ElGETAKO EAJ/PNV-k,
MARTXOAREN 12AN
GUREGAN JARRI DUZUEN KONFIDANTZA
ESKERTU NAHI DU

ElGETAKO EAJ/PNV



*Nikaraguarekin
elkartasun eguna*

Soneros del Changüí talde kubatarra

Apirilak 14ko egitaraua

*20:00etan diapositibak: "Nikaraguan brigadista"
21:15etan afaria: gallopinto, mangoak, rona...
22:30etan "Nikaraguan etxegintzan" diapositibak
23:00etan Soneros del Changüí Kubako taldearen
kontzertua.*

oh.

**Ronik ez da faltako*